

IRABAZI ITURRIAK - AJIA deliveries

-Aktiboen salmenta: Gure diru-sarrerak aktiboak salduz etorriko da, baina ez da izango stockaren bidez. Guk akordioak egingo ditugu supermerkatuekin eta haien produktuak saltzeagatik deskontuak egingo dizkigute (oraindik ez dakizkigu ehunekoak). Deskontu horiek lortuz, guk errentagarritasuna aterako dizkiegu produktu horiei eta eskaera bat izaterakoan errentagarria izango da guretzat. Adibidez Eroskin **140€-ko eskaera** bat **guri kostatuko zaigu 120€**, baina guk 140€ kobratuko dugu. Ondorioz eskaera horretan **20€ irabaziko** ditugu aktiboen salmentagatik.

Aktiboak, janaria eta bestelako produktuak izango direnez, bukatzerakoan kliente horiek berriro etorriko dira gure zerbitzuak erostera. Horregatik dirua irabaziko dugu bezero berdinarekin bere konfiantza lortzen badugu. **Negoio ziklikoa** izango da.

-Harpidetzak: Momentuz harpidetza mota bat izango dugu, hileroko 19,99€-gatik gure bezeroari bidai- edo zerbitzu-kostuak kenduko diegu. Normalean hileroko pertsona normal batek astero (4 aldiz hilean) edo 3 aldiz hilean egiten ditu erosketak. Gure **zerbitzu-kostua 9,99€**-koa izango denez, bezeroak dirua aurreztuko dute baina guk argi izango dugu hileroko harpidetza kobratuko dugula eta bezero hori erosketak egingo dituela gure webgunean.

-Zerbitzu-kostuak: Produktuak supermerkatuetatik hartzeagatik, etxera eramateagatik eta denbora aurrezteagatik eskaera bakoitzean **9,99€** kobratuko ditugu. Azkenean guk ere zerbitzu bat saltzen ari gara eta zerbitzu hori kobratu egin behar da.

-Publizitatea: Diru-sarrera hau bigarren mailakoa izango da, dibertsifikatzeko modu bat eta diru gehiago lortzeko modua. Guk furgonetekin asko mugitzen garenez eta leku ezberdinetatik, beste negozio edo enpresa batzuk promozionatu ditzakegu eta ondorioz, dirua kobratu.

Honekin batera lortuko dugu baita ere supermerkatuen deskontuak, guk haien produktuak salduz eta gure webgunean haien enpresak jarriz publizitatea izango dute. Publizitate hori ez dugu kobratuko baizik eta akordio batera helduko gara beraien, deskontu horiek lortzeko.

